



PRENTSA OHARRA

Prensa ohar honen bitartez, **EHGAM**ek Lesbitoria-Gaysteiz elkarteak, Gasteizko udaletxeko lesbiana, gay eta inguruko informazio eta asistentziarako ENFASIS zerbitzuaren kudeatzaileak, deitutako administratzaile-koordinatzaile plazaren inguruan duen postura ezagutarazi nahi du.

EHGAM-ek hirugarren pertsona batzuei esker jakin ahal izan duenez, deialdiaren oinarrietan, aipatutako plaza lortzen duen pertsonak hartuko duen postua ez da argi gelditzen, hau da, postua ENFASIS zerbitzurako izango den edo aldiz, Lesbitoria-Gaysteiz elkartearentzako. Garrantzi handiko informazioa da honakoa, alde batetik elkarte batez ari delako eta bestetik, Gasteizko Udaletxearen menpeko zerbitzu batez, eta beraz, hautaketa irizpideak guztiz ezberdinak izan beharko lirateke.

Honez gain, deialdiaren oinarrietan azaltzen den bezala, lehiaketa Lesbitoria-Gaysteiz elkartearen zuzendaritza batzarraren bitartez deituta dago, eta postua lortzen duen pertsonak burutu beharreko lanen artean 'Lesbitoria-Gaysteiz-ko organoetan parte hartzea' (1.5. atala) eta 'Lesbitoria-Gaysteiz elkartearen kide izatea, edo behintzat, lan kontratu sinatu aurretik kide egitea' eskatzen da, hala ere, postua lortzeko dokumentazioa 'ENFASIS zerbitzura' bidali behar da. **Gasteizko Udaletxeko ENFASIS zerbitzua Lesbitoria-Gaysteiz elkartearen egoitza al da? Udaletxeko zerbitzu batean lan egiteko elkarte jakin bateko kidea izatea beharrezkoa al da? Lesbitoria-Gaysteiz, berak kudeatzen duen zerbitzuaz baliatzen al da elkartearen ekintzak aurrera eramateko?**

Plaza lortzeko eskatzen den beste baldintza 'gizonezko homosexuala' izatearena da (2.1. atala), emakume eta gizonen arteko parekotasuna mantentzeko. Beraz, lehiaketaren baldintzak jarraituz, **Gizonezko transexual batek ezin du lanpostu hau lortu? Elkarte edo udal zerbitzu hau kolektibo transexualarekiko sentsibilizazioa ote du?**

Urtearen hasieran, EHGAM-ek, elkartearen aurkezpena egiteko asmoz, ENFASIS zerbitzua bisitatu zuela aipatu beharra dago, non helbide elektronikoak, telefono zenbakiak eta blog-aren helbidea elkartrukatu genituen.

Hala ere, ez ENFASIS zerbitzutik ez Lesbitoria-Gaysteiz elkartetik, lehiaketa honen berri emateko EHGAM-ekin harremanetan jarri EZ direla esan behar dugu, baina lanpostua lortzen duen pertsonaren egitekoen artean aldiz, 'Lgtb kolektiboekin eta beste GKE-ekin harremanak izatea' (1.5. atala) eta 'LGTB-en arretarako zerbitzu edota beste elkarteetan egindako borondatezko zein soldatapezko lana' baldintza baloragarriak izango direla (3.1.



atala) aipatzen da. Gauzak horrela, kolektibo hauetan lan egiten dugunok borondatezko lanean esperientziadunak gara eta gure taldeak lanpostu honetarako deialdiaren berri jaso ez duela gogorazi nahi dugu. **Hauek al dira ENFASIS zerbitzuak edo Lesbitoria-Gaysteiz elkarreak mantendu nahi dituen harremanak? Nola hartuko du ENFASIS zerbitzuak edo Lesbitoria-Gaysteiz elkarreak LGTB kolektiboen lana, talde hauei lanpostu honetarako lehiaketaren berri ematen ez badie?**

EHGAM-ek udal zerbitzu honen inguruan zalantzak ditu. Izan ere, kolektibo bakoitzak nahi duen bezala funtzionatzeko askea izan behar dela ulertu arren, ez da berdina diru publikoarekin kudeatzen den Gasteizko Udaletxeko zerbitzu batez ari garenean.

Aurkeztu ditugun zalantzak argitu eta Lesbitoria-Gaysteiz-tik egindako deialdiarekin dituen loturak azaldu ditzan dei egiten diogu ENFASIS zerbitzuari.

Arabako ehgam Euskal Herriko gay –les askapenerako mugimendua

Gasteizen 2009.ko uztailaren 8an